

★ Anna
KADABRA★

The text 'Anna KADABRA' is rendered in a vibrant pink color. 'Anna' is written in a cursive, handwritten style, while 'KADABRA' is in a bold, serif font. The design is embellished with three black stars: one above the first 'A' of 'Anna', one between the two 'n's, and one above the final 'A' of 'KADABRA'. A black witch's hat is positioned above the last 'A' of 'KADABRA'. The letter 'K' in 'KADABRA' features a black and white striped pattern on its left vertical stroke.

Madame Prune

Nire andereñoa da, eta gure klubeko burua. Antigoaleko samarra dirudi, baina gu baino are pitzatuago dago!

Marcus Pocus

Nire lagunik onena, nahiz eta haren beleak ez nauen oso gogoko. Magia berdea du, eta ikaragarri gustuko ditu txantxak eta plan zentzugabeak.

Anna Kadabra

Hau ni naiz, eta hau nire katua!
Nire ortzadar-magiari esker, arazo mordoa konpon ditzaket... eta beste potoloago batzuk sortu.

Sara Kazam


Taldeko zaharrena da, ikaslerik onena... eta agintzaileena. Haren magia horia da, eta saguzar pinpirin bat dauka maskotatzat.

Oliver Dark

Urrundu zaitez mukizu honengandik. Bere birraitona bezalakoa izan nahi du: Moonvilleko sorgin-ehiztaririk ospetsuena. Harrapa gaitzala ba!

Angela Sesamo

Bakarra da munduan, haren zapoa bezala. Magia morea du, eta izugarri maite ditu komikiak eta bideojokoak, baita egunero desberdin sentitzea ere.



Moonville

Haitzarte Mamua

Hirirako errepidea

Koko eta Txokolate

Haitzulo Bikiak

Mac Moonen etxaldea

Sorgin-ehiztarien kuartela

Maitagarrien putzua

Jauregi Sorgindua

Ekaitzen itsasargia

Moonvilleko eskola

Anna Kadabraren etxea

Zingira Beldurgarria

Gaztainondo Zaharra

© testuarena: Pedro Mañas, 2020

© ilustrazioena: David Sierra Listón, 2020

© Travel Bug Edizioak, 2022

Travel Bug Edizioak
Busca Isusi, 46
20015 Donostia-San Sebastián
Telefona: 651 181 147 / 657 736 522
www.travelbug.es
editorial@travelbug.es

Itzulpena: Aiora Jaka Irizar
Maketazioa: Ariana Design Studio. www.ariana-ds.com

ISBN: 978-84-123820-4-4
Lege gordailua: LG D 00892-2022
Inprimaketa: Gráficas Ulzama

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.

Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo TRAVEL BUGera.



Ilargi Betearen Kluba

travel bug



A, zu zara! Ederra sustoa. Bihotzekoak eman dit ia.
Liburua ireki duzunean, sorgin-ehiztari bat
zeturrela pentsatu dut. Haietako batek aurkituko
banindu, akabo. Gorde ondo, mesedez,
kontatuko dizkizudan sekretu guztiak!

Ados, bai, sorgin bat naiz, baina ez beldurtu.
Ez dizut sorginkeriarik egingo. Gainera, oraindik
aprendiza besterik ez naiz. Eta baldar samarra.

Gehienez ere, liburu hau legatz bihurtu nezake. Ez dakit zer gertatzen zaidan, baina azkenaldian legatzak baino ez zaizkit ateratzen. Batzuk freskoak eta beste batzuk arrautza-irinetan pasatuak, baina denak nazkagarriak.

Nire izena Anna Green den arren, nire lagun berriek Anna Kadabra deitzen didate.

Eta burutik jota nagoela esaten dute. Ba haiek ere...

Nire magia deskubritu nuenetik, etsai batzuk ere badauzkat. Eta haiek are gauza itsusiagoak esaten dituzte nitaz, baina ez dizkidate aurpegira esaten, zeren bestela... bueno, legatz bihurtuko nituzke.

Begira, horko hori ni naiz. Ziur nago kapa beltz batekin imajinatzen ninduzula, bota



puntazorrotzekin eta sudurreko garatxoekin, baina ez. Uniforme ofiziala jantzita ibiliko banintz, berehala harrapatuko nindukete.

Garatxoeren ordeztak ditut. Kaparen ordeztak, koloretako galtzak eta tulezko gonak.

Botak erabiltzen ditut, bai, saskibaloikoak.

Makilatxo magiko pertsonalizatu bat ere badaukat, eta sorginkeria-koaderno bat eta maskota magiko bat.

Azkenik, iluntasunean distira egiten duen ilargi txiki bat daramat bularrean. Ilargi Betearen Klubaren intsignia da, elkarte sekretu horretako kidea naiz-eta. Ausarta bazara, agian egunen batean zu ere sartuko zara gure elkartean.

Ilargi Betearen Klubean hiru arau daude soilik. Diamantezko Arauak deitzen diegu, ezin direlako hautsi. Iazko Turroizko Arauak ere izan zitezkeen, hori zailagoa baita hausten. Hauek dira:

Lehenengoa da klubetik
kanpoko inork ezin dituela
ezagutu zure botereak.

Hau da, ezta zure amonak ere.

Bigarrena da ezin diozula
konjururik lapurtu adiskide bati.

Konjuru-lapurrak, kanpora!

Hirugarrena da ongia egiteko
soilik erabili behar duzula magia.

*Ezta pentsatu ere zure eskola
desagerraraztea.*

Hurrengo orrialdeetan irakurriko duzu nola jakin nuen sorgina nintzela... eta nola hautsi nituen hautsi ezin diren arauak. A, eta, bide batez, nola egon nintzen herri oso bat suntsitzeko zorian.

Ezkutaketan

1

Goiz hartan, nire etxeak zoroetxea zirudien.
—Ez dut inon aurkitzen! —oihu egin zuen norbaitek korridorean.

—Non demontre sartu da lotsagabe hori? —
beste batek sukaldean.

Bai, lotsagabea ni nintzen. A, eta garrasika ari zirenak, nire gurasoak.

Biak zebiltzan nire bila, baina ezin ninduten

ikusi. Ez nintzen ikusezin bihurtu, ez. Artean ere ez nituen nire botereak deskubritu. Ohe azpian ezkutatuta nengoen; hori zen dena. Eta garrantzitsuena: ez nuen handik ateratzeko asmorik.

—Anna, ene laztana! —oihukatu zuen aitak, maitekor.

—Anna, lotsagabe halakoa! —oihukatu zuen amak, haserre.

Hor ikusten dituzun horiek nire gurasoak dira. Ados, nire gurasoen oinak. Horixe baino ezin nuen ikusi nire ezkutalekutik. Baina oinen itxurak ere esaten digu nolakoak diren pertsonak. Eta oinen usainak ere bai, batzuetan. Eskolako gimnasioan, oinen usainak dena esaten du.

Ezkerreko oinak nire amarenak dira. Bera bezain txikiak dira, eta berak bezainbesteko zarata ateratzen duten bi takoitan sartuta daude.



Banku batean egiten du lan eta oso urduria da. Pentsa: batzuetan nahastu egiten da eta kolore desberdinetako zapatak janzen ditu (baina hori esan zuk, ausartzen bazara).

Eskuineko oinak nire aitarenak dira. Handiak dira baina isilak, bera bezala. Irakaslea da, lasaia eta dotorea. Horregatik, beti aurkitzen du denbora zapatei distira ateratzeko. Galtzerdiak tira-tira eginda eramaten ditu, iltzez josita baleuzka bezala.

Oinak hain desberdinak dituzten arren, nire gurasoak bat datoz gauza batean: ikaragarri atsegin dute pastelak egitea. Ez, ez dituzte oinekin egiten! Ez zaizkigu gazta-zaporeko pastelak gustatzen.

Nire gurasoek bazuten amets bat. Amets gozo bat. Beren lanak utzi eta gozotegi bat ireki nahi zuten elkarrekin. Baina, lortu zutenean, haien ametsa nire amesgaizto bilakatu zen.

Kontua da gozotegia irekitzeko etxez aldatu behar genuela!

—Ulertu egin behar duzu, Anna —esan zuen aitak—. Hirian denda gehiegi daude. Baina, begira, lokal ezin hobea topatu dugu...

—Moonville izeneko herri zoragarri batean dago —erantsi zuen amak—. Eta badakizu? Herri sorgindua dirudi, magiazko kondairaz eta sorginez betea.



Niri bost axola pailazoz eta hanburgesz beteta bazegoen ere. Edonola ere, nik ez nuen aztikerietan sinesten eta ez nituen utzi nahi nire etxea, nire eskola eta nire lagunak. Horregatik erabaki nuen ohe azpian sartzea eta han gelditzea betiko.

Ongi prestatuta nengoen. Gauza mordoa neukan neurekin: litxarrerriak, liburuak, hortzetako eskuila, nire patinetea eta beste hainbat gauza erabilgarri. Adibidez, tona-erdi hauts eta galtzerdi zahar bat.

Ados, ohe azpia erraztatzea ahaztu nuen. Baina galtzerdiari sekulako kiratsa zerion, eta neure burua defendatzeko erabil nezakeen. Gainera, ez nengoen bakarrik. Cosmo neukan alboan.

Cosmo kaleko katu bat zen. Egunak zeramatzan gure auzoan bizitzen. Izena neuk jarri nion. Inorena ez zen arren, etxe guztietan



ibiltzen zen sartu-irtenean. Begi horiak zituen, belarri puntadunak eta ile grisa.

Buztanaren punta bakarrik zeukan beltza, tximinia batean sartu izan balu bezala.

Ba, hain katu aparta izanda ere, gurasoek ez zidaten uzten nirekin eramaten.

—Anna! Atera behingoz! —entzun nuen ama—. Ilundu baino lehen iritsi behar dugu Moonvillera!

«Baita zera ere!», pentsatu nuen. Atera beharrean, are gehiago uzkuritu eta katuaren belarriak ferekatzen hasi nintzen. Cosmo, ordea, ozen-ozen hasi zen miauka. Polita bezain ergela zen.

—Rock-kontzertu baterako momentua iruditzen zaizu? —xuxurlatu nion estu eta larri—. Harrapatu egingo gaituzte!

—Miau —errepikatu zuen katuak—. Miau, marramiau!

Une hartantxe, amaren burua agertu zen ohazalaren azpian.

—Zertan ari zara hor? —galdetu zidan zakar—. Eta berriro piztia horrekin. Esan ez nizun ba ez nuela nahi etxera ekartzea!

Cosmok, izututa, nire eskuetatik ihes egin eta leihotik behera egin zuen jauzi.

Ni txoko batean babesten saiatu nintzen, baina



amak botetatik heldu eta tira egin zidan. Minutu bat baino gutxiagoan, maletaz zamatutako autoraino eraman ninduen herrestan.

Danba!, danba!, danba!, danba!

Itxi ziren lau atek, eta amak azeleragailua

sakatu zuen.

—Cosmo! —oihukatu nuen leihatilatik, baina alferrik.

—Tira —esan zidan aitak—. Ahaztu katua eta kantatu dezagun. Sardina bat...!

Begiak amorruz txinpartaka nituela begiratu nion. Eta bera seko zapuztuta geratu zen, abestiko sardina guztiak gainera erori balitzaizkio bezala. Jada ez nengoen haserre. Sutan nengoen.

Orduan, bat-batean, soinu apal bat entzun nuen nire oinetan. Urruma lotsati moduko bat.


Hantxe zegoen Cosmo, nire oinetakoaren inguruan kiribilduta!

Bizkor-bizkor, katua hartu eta motxilan sartu nuen. Hori egitean, Cosmok begia kliskatu zidala iruditu zitzaidan.



Cosmo zaintzeko, ez lokartzea erabaki nuen.

Ba hamar minuturen buruan, lo seko geratua nintzen. Autoko bidaiak, izan ere, logura handiena ematen didaten gauzen zerrendan daude:



“Logura ematen didaten gauzen” zerrenda

4. Autoko bidaiak.
3. Norbaitek nire ilea ukitzea.
2. Nire gurasek diruaz hitz egitea.
1. Autoan noala norbaitek nire ilea ukitzea nire gurasek diruaz hitz egiten duten bitartean.